Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2024ko apirilaren 29a, astelehena — 82 — Lunes, a 29 de abril de 2024

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZALDIBIAKO UDALA

*Iragarkia*

Alkatearen ebazpenez onartutako 2024ko 1. hiruhileko hondakinen kudeaketa tasako errolda jendaurrean jartzen da Gipuzkoako Tokiko Ogasunak Arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauen 14.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onesten duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 68. artikuluan ezartzen den borondatezko zergabilketako epea eta modua adierazten dira. Hori guztia ondoko arau hauen arabera:

*a) Agertzen den tokia:* Udal Idazkaritza.

*b) Aztertzeko epea:* Hilabetekoa, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera.

*c) Desadostasuna adierazteko epea:* Hilabete bat, b) atalean adierazi bezala, arauzko birjapen errekurtsoaren bitartez.

*d) Errekurtsoa aurkezten zaion organoa:* Alkate Lehendakaria.

*e) Erreklamazioak aurkezteko tokia:* Udaletxeko sarrera erregistroa, bulego orduetan.

*f) Errekurtsoa tartejartzearen eraginak:* Aipatutako Foru Arauen 14.2 artikuluan xedatutakoak.

*g) Zergabilketa epea:* 2024ko maiatzaren 2tik ekainaren 14ra.

*h) Sarrera modua:* Helbideratutako ordainagiriak baimenduriko erakunde eta kontuan 2024ko maiatzaren 15ean zordunduko dira.

Helbideratu gabe daudenak, berriz, posta arruntez bidaliko zaizkio zergadunari berak adierazi duen helbide fiskalera eta edozein banketxe edo aurrezki-kutxetan ordain dezakete. Ordaintzerakoan, bidalitako ordainagiri osoa aurkeztu beharko da; une horretan hurrengo ordainagiriaren helbideratzea eskatu ahal izango da.

Maiatzaren 15erako helbide fiskalean erreziborik jasoko ez balitz, interesatuak Zaldibiako Udalean bikoiztua eskatu beharko du, jendaurreko bulego-orduetan.

Jakinarazi nahi da, zerga bilketa epearen barruan zor horiek ordaintzen ez badira, prozedura exekutiboaren bitartez exijituko direla eta premiamenduzko errekargua, berandutza interesak eta, bidezko balitz, sor daitezkeen kostuak gehituko direla.

Zaldibia, 2024ko apirilaren 18a.—Ioritz Berra Juaristi, alkatea. (2867)

## AYUNTAMIENTO DE ZALDIBIA

*Anuncio*

Aprobado por resolución del alcalde el padrón correspondiente a la tasa de gestión de residuos del 1.er trimestre de 2024, se somete a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 14.1 de la Norma Foral 11/1989 de 5 de julio Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Asimismo, se señala el plazo y forma de recaudación voluntaria que requiere el art. 68 del Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Todo ello conforme a las siguientes normas:

*a) Lugar donde está de manifiesto:* En la Secretaría del Ayuntamiento.

*b) Plazo para examinarlo:* Un mes, desde el día hábil siguiente al de la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*c) Plazo para manifestar la disconformidad:* Un mes, computado en la forma que se indica en el extremo b), mediante la interposición del preceptivo recurso de reposición.

*d) Órgano ante el que se recurre:* Alcalde-Presidente.

*e) Lugar de presentación de reclamaciones:* Registro de Entrada del Ayuntamiento, en horas de oficina.

*f) Efectos de interposición del recurso:* Los dispuestos en el art. 14.2 de la Norma Foral citada.

*g) Plazo de recaudación voluntaria:* Del 2 de mayo al 14 de junio de 2024.

*h) Modo de ingreso:* Los recibos que se hayan domiciliado, se cargarán el 15 de mayo de 2024 en la cuenta y entidad que esté autorizada.

Los no domiciliados, serán enviados por correo ordinario, al domicilio fiscal indicado por el contribuyente, para su pago en cualquier banco o caja de ahorros, aportando el recibo completo, momento en el que se podrá solicitar la domiciliación del mismo.

Quienes antes del 15 de mayo no hayan recibido el recibo en su domicilio fiscal, deberán solicitar un duplicado en las oficinas municipales, en horario de atención al público.

Se hace saber, que si en el expresado plazo de recaudación no se hacen efectivas estas deudas serán exigidas por el procedimiento ejecutivo y se incrementarán con el recargo de apremio, los intereses de demora y, en su caso, las costas que se produzcan.

Zaldibia, a 18 de abril de 2024.—El alcalde, Ioritz Berra Juaristi. (2867)

EK\CV GAO-I-2024-02867